

## Kaleak hutsik, laugarren astez

Koronabirusak eragindako osasun krisia dela eta, etxean konfinatuta daude herritarrek; 24 kasu atzeman dituzte Lasarte-Orian / 2

TXINTXARRI

## Azterketa zaila guztientzat

Lasarte-Oriako hezkuntza zentroak eta ikasleak errutina berrira moldatzen ari dira: etxetik jarraitzen ari dira ikasturtearekin / 8-9



**Gai desberdinei buruz hausnartu dute zutabegileek itxialdi aste hauetan / 3**

**Are zailagoa bilakatu da Javier Rebollo eta familiaren eguneroko bizitza / 5**

**Koronabirusak ekonomian nola eragin dezakeen aztertu du Iñaki Erauskinek / 6**

**Lorena Zabala izotz-hockey jokariak denboraldiaren erreposoa egin du / 10-11**

### UDAKO TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta Ttakunera maiatzaren 8a baino lehen

**Betebeharrak:** -Begirale titulua. -EGA edo baliokidea den agiria. -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

**Eskaera orria:** [www.labur.eus/begirale2020](http://www.labur.eus/begirale2020)

aisia@ttakun.eus | Geltoki 4 | Lasarte-Oria | 695 785 392



Lasarte-Oriako anbulategiko langileek aitortza egin zioten Basurtuko ospitalean zendutako erizainari, martxo bukaeran. TXINTXARRI

## Eguneroko bizitza eten duen COVID-19 birusaren hedapena

Pandemia hasi zenetik 24 kutsatu izan dira Lasarte-Orian, 104, Beterrri-Buruntzaldean; eta 9.021 Euskal Autonomia Erkidegoan. Espainiako gobernuak martxoaren 14an Alarma Egoera ezarri zuenetik kutsaduren hedatzea moteltzea lortu dela dirudi Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezagutarazitako datuen argitan

### Maitane Aldanondo

Txinako Wuhan hirian koronabirusa atzeman zutenean, inork gutxik pentsa zezakeen hilabete gutxian egoera hau izango zenik. Urrutiko birusak ekialdetik mendebaldera bidaia egin eta ia kolpean hankaz gora jarri du egunerokoa. Birusaren eragina nabaria egin den heinean, neurriak ezartzen joan dira.

Etorriko zenaren lehen zantzua, martxoaren 12an heldu zen. Hezkuntzak atek itxi zituen, zalatza eta ziurgabetasunez betetako etorkizuna zabalduz aurtengo ikasturtearen inguruan; bereziki latza, unibertsitatearen atarian dauden ikasleentzat. Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuten ondoren, etxean gelditzera derrigortuz herritarak, nahiz eta salbuetsitako zenbait egoeratan kalera irtetea ahalbidetu. Saltokiak eta enpresak pertsiara jaisten joan dira eguneko aurrera

egin ahala. Ia denek lana egiteari utzi diote. Michelin-Lasartek, adibidez, hasieran egun batzuetako etena izan behar zena, aldi baterako lan erregulazio bilakatu da.


COVID-19aren irudia hustutako kaleak eta betetako balkoiak badira ere, kutsatuen datuen

erakusten dute pandemiaren larritasuna. Azken datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 9.021 kutsatu daude, 2.744, Araban; 4.717 Bizkaian eta 1.560 Gipuzkoan. Lasarte-Orian, berriz, 24 lagun eragin ditu koronabirusak. Martxoaren 19an eman zuten lehen kasuaren berri.

### Hiru asteko bilakaera

Martxoaren 18tik Osasun Sailak txosten batean biltzen du hedapenari eguneraketari buruzko informazioa hainbat ataletan xehatuta. Besteak beste, udalerrri eta osasun eremu bakoitzari buruzko datuak daude, bilakaeraren jarraipena egiteko aukera emanez. Lehen dokumentu horrek Lasarte-Orian kasu bat zegoela ezagutarazi zuen. Biharamunean, aldiz, laura igo zen kopurua, horietako bi Atsobakar zahar egoitzako langileak. Astebete mantendu zen hala, martxoaren 23an bosgarren gaixoaren berri eman zuten arte. Orduetik aurrera, ordea, gorakoari heldu zion eta hilabete bukaeran 21 ziren kutsatuak. Ezagutarazitako azken datuen arabera, astelehenean 20:00ak arte bildutakoak, 24 dira kutsatutako lasarteoriatarak.

Beterrri-Buruntzaldeari dagokionean, 104 baieztapen



Beterrri-Buruntzako herrietan atzemandako kasu positiboak, eguneko. TXINTXARRI/TOKIKOM

izan dira pandemia piztu zenetik. Hernani da kutsatu gehien dituenena, 33, eta Andoain segidan doa, 26. Astigarraga, Urnieta eta Usurbilek, berriz, 7, 8 eta 6 dituzte, hurrenez hurrez. TXINTXARRI eta Tokikomen elkarlanari esker, asteburutik, aldizkariko webgunean eskualdeko datu eguneratuak hainbat grafikatan bilduta agertzen dira.

### Kurbaren beheakadaren zain

Otsailaren 28an diagnostikatu zituzten lehen bi COVID-19 kasuak Euskal Autonomia Erkidegoan: Milanen (Italian) izandako gazte gipuzkoar bat eta Andaluzian izandako Txagorritxu ospitaleko (Gasteiz) mediku bat. Itxialdiaren hasieran, Araban 399 lagunek zuten koronabirusa; Bizkaian, 134k, eta Gipuzkoan, 58k. Lehen hamabostaldia osatuta, 1.947, 2.776 eta 1.017 ziren, hurrenez hurren; eta 23. egunean, 2.744; 4.717 eta 1.560 dira. Azken zenbaketan 206 baieztapen berri izan dira, horietako 31, Gipuzkoan.

Ospitaleratuen kopurua murrizten jari da, nahiz eta EAEko ospitaletan 1.725 kutsatu egon, horietako 169, Donostia Ospitalean. Halaber, osatu eta alta emandakoen batura 3.728 da, eta heriotzak, berriz, 586. Zailtasunak zailtasun, 23.246 test egin dituzte, milioi biztanleko Italian gauzatutako pare. Astelehenean, 768 proba burutu zituzten eta positiboak %27 izan ziren, azken hilabeteko datu onena.

Metatutako datuekin osatutako profilari dagokionean, emakumezkoen (%54,6) gizonzkoen baino gehixeago eragiten die koronabirusak; eta 50 urtetik gorakoak dira gehienak, bereziki, 50-69 urte artekoak (%34,8). Adinekoengan eragin larriagoa duenez, 80 urtetik gorakoengan da hilgarrien, %40,5.

Baikor izateko zantzuak badira ere, etxean igaro beharreko, gutxienez, beste 18 egun gelditzen dira. Alegia, ondo bidean, 42 eguneko berrogeialdia izango da. Edonola, kaleak bete eta ohikora bueltatzeko gehixeago beharko da.

**BETERRI-BURUNTZAKO DATU EGUNERATUEN GRAFIKAK IKUSGAI DAUDE TXINTXARRIKO WEBGUNEAN**



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

## Dena amaitzen denean

Coronavirusa gure lurraldetara heltzean sartu ginen ta ordutik konfinatuta etxean diraugu ta ez dakigu seguru aste egun edo asteburu den altxatu bakoitzean. Lau pareta direnetik mundu zenbat aldiz esan ote dugu dena amaitzen denean?

Zenbat erizain, mediku ta garbitzaile lanean beren burua arriskatu guztiok zaindu nahiean. Lehen ikustezinak zirenak orain txalotzen ditugu denak herriaren izenean... Ea euren lana oroitzen dugun ta berdin baloratzen ditugun dena amaitzen denean.

Zaintzari duen pisua eman zaio azkenean, beharrezkoa dugula ohartu garen unean. Emakumeek zaindu izan dute urteetan eta deusen truke... eta gu ahaleginean: zaintzea zer ote den ikasten, baina ea ez dugun ahazten dena amaitzen denean.

Eguna ondo hasteko, kirol apur bat goizean, beste hiru ordu pasa liburu baten aurrean, dozena bat sudoku ebatzi ta beste hiru ipuin idatzi ahal bada egunean. Berrogeialdiaren harira, hamaika artista jaioko dira dena amaitzen denean.

Baina noizbehinka itota sentitzen gara etxean mugimendua, bizitza luzaroan etetea. Enpatia bilakatuz hitza: pentsa nolakoa den bizitza ziega baten barrenean... Nahiz ez agertu oraingo zitan joango gatazkaizkie bisitan dena amaitzen denean.

Amona bat, biloba bat, ehun kilometro tartean zenbat hitz goxo kabitzen dira pantaila batean? Orain arte esan ez direnak azaleratu ohi dira denak egoera txarrean. Elkar babesteak ze garrantzi duen ezingo dugu ahantzi dena amaitzen denean.

Jende askok segurtasun neurririk ez du lanean osasuna, kapitala parez pare ipintzean: diruak balio badu klaro bizitzak berak baino gehiago ez gabiltz bide onean. Ta erraustegiaz zer diogu? zaborra erretzen segituko du dena amaitzen denean.

Larritu ginen denbora guztiz gelditu zenean ez baitakigu egoten stand by-an, egonean... Behintzat pentsatu dezagun hala: hausnartzeko balio dezala kasurik ta onenean. Mundua aldatuko da seguru guk berdin jarraituko al dugu? Dena amaitzen denean.

Doinua: 'Haritzaren memoria'

Iritzi zutabea entzuteko egin klik hemen! Entzun, hausnartu eta gozatu!

## 'Nola daramazu itxialdia?' erronka martxan jarri du Txintxarri-k

Kontaiguzo, testu edo bideo bidez, nola daramazun konfinamendua, irakurle. Paperezko zenbakietan argitaratuko ditugu kontakizunak

### Txintxarri

Ezohiko egun eta asteak bizitzen ari gara koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko. Eta zuk, irakurle, nola daramazu itxialdia? Erronka txiki

bat martxan jarri dugu; kontaiguzo nolakoa den zure egunerokoa! Paperezko zenbakiak argitaratzen hastean argitaratuko ditugu kontakizunak.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA

## %1aren garaipena, berriz ere?

Ez dugu estimatzen daukaguna, galtzen dugunera arte. Topikoa dirudi eta egunotan inoiz baino agerikoagoa, baina ez dago soberan gogora ekartzea. Etxetik irten ezin eta orduan igartzen dugu askatasun falta, are gehiago hautu hori aginduz bete behar dugunean.

Pertsonalki, ordu asko igarotzen ditut etxean eta, hein batean, konfinamendua ez du nire egunerokoa horrenbeste eraldatu. Biziki maite dut pertsona jaitzi eta ilunpeko babesean filmak eta telesailak ikustea. Liburuak, aldizkariak, egunkariak... begiak pantailatik kendu, lerro artean atsedean hartu eta adimena aktibatzea ere beti da gozagarri. Eta noski, musika. Instrumentua hartu, erritmo eta melodien ozeano zabalean murgildu eta inguruan dudan edozer ahaztu nezake, erabat deskonektatu. Hori gutxi balitz, etxean ez zait argi indarrik, urik edota janaririk falta.

Baina, etxegabeekin zer? Eta paperik gabeko migratzaileekin? Eta preso eta kartzelekin? Erronka nabarmen konplikatua dute, gure aldean, dena eskura ez duten horiek. Gaixotzeko arriskuz edo, akaso jada gaixotuta, lantokira joan behar dutenek, lan prekario batetik bestera saltoka dabiltzanek, urte luze defendaturiko proiektuak bertan behera utzi beharko dituztenek... eta, noski, gaixotasunaren ondorioz hil ala biziko egoeran daudenek.

Konfinamendua amaitzean topatuko dugun "normaltasun" berriaren inguruko kezka ere denon ahotan da jada. Bada, 2007an 'The Shock Doctrine' liburua plazaratu zuen Naomi Klein kazetari kanadiarrak eta koronabirusaren harira, bere tesia eguneratu du. Kleinen aburuz, krisi garaia ez dira murrizketa eta atzerapauso garaia soilik. eliteek larrutu gaitzakete eta horren ondorioak hainbat hamarkadatan ordaindu, baina honakoa une aproposa izan daiteke ere aste batzuk lehenago ezinezko ziruditen gizarte garaipenak eskuratzeko. Gure esku dago, presioa eta aldaketa bultzatzea, %1ak berriz ere irabazi ez dezan.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

## Lehentasunak

Azken egun hauetan konturatu gara zein garrantzitsua den gure osasuna. Lehentasunezkoa da higie-arauak betetzea. Eta honek ez du barnean hartzen komuneko paper-pakete guztiekin amaitzea.

Immunitate sistema indartsu bat mantentzeko, eskuak garbitzeaz gain, garrantzitsua da: ez erretzea, alkoholik ez edatea eta ariketa fisikoa egitea (etxean ere egin daiteke). Eta, jakina, elikadura-jarraibide onak mantentzea, "zabor-janaria ekiditetik" hasten dena —berrikusi zure erosketa-orga—.

Fruta eta barazki gehiago hartu, freskoak eta sasoikoak. C bitaminak EZ du sendatzen birusa! Baina C eta A bitaminak, zitrikoak eta laranja-gorrixka kolorekoak, aukera ona dira gure defentsak indartzeko. Lekaleak, fruitu lehorrak eta zereal integralak gehiago hartu, zinka lortzeko. Eta Udaberria hasita, terrazan edo leihoan eguzkia hartzera gonbidatuko zintuzketet; baina Euskadin bizi garenez, esneki osoak, arrain koipetsuak eta onddoak hartu D bitamina lortzeko.

Ezinbestekoa da, ondo hidratatzea: ura, infusioak ... eta ura edatea. Azukreak eta alkoholak deshidratatzen dute, beraz, ez dira zerrendan sartzen: zukuak, freskagarriak edota garagardoa.

Eta, noski, garrantzitsua da ere bai behar bezala atsedean hartzea. Lo egiteko 7-8 ordu ziurtatzeaz gain (egunotan errazagoa dena), funtsezkoa da kalitatea. Afari ugari eta koipetsu batek digestioa motelduko luke eta loaldiari eragin; hortaz, saihestu sofa-mokaduak.

Behar ez duzuna ez erosi (neurritz egin) eta gogoratu, erosten ez dena ez dela jaten.

# Osasun zentroaren arreta zerbitzua, astegunetan

Lasarte-Oriako anbulategiak jakinarazi du astelehenetik ostiralera mantentzen duela zabalik herritarrentzako arreta zerbitzua, 08:00etatik 20:00etara. Asteburuetan, berriz, Hernaniko Osasun Zentrorra joan beharko dute lasarteoriatarrek

## Txintxarri

Egunotan herritarren artean zabaldu diren informazio oker batzuk gezurtatze aldera, Lasarte-Oriako Osasun Zentroak adierazi du ez duela aldaketarik egingo larrialdi zerbitzuan: astelehenetik ostiralera artatzen ari da jendea, 08:00etatik 20:00etara, ohiko ordutegian. Horraino, inolako aldaketarik ez.

Asteburuetakako jardunari dagokionez, moldaketa batzuk egin dituzte. Hernaniko Osasun Zentroa arduratuko da 24 orduko zerbitzu hori eskaintzeaz. Bertara joan beharko dute horren beharra duten lasarteoriatarrek. Telefono zenbakia hau da: 943 00 66 66.

Osakidetzak ere jarri du telefono zenbaki bat herritarren eskura, sumatzen badituzte Covid-19 birusaren sintomak –sukarra, eztula, nekea, gorputza minbera sentitzea, arnasa hartzeko arazoak edukitzea, e.a.–, bertara dei dezaten: 900 20 30 50 da zenbakia.

## Arreta psikologikoa telefonoz

Konfinamendua eramaten errazagoa egite aldera, Gipuzkoako Psikologo Elkargo Ofiziala telefono bidezko doako arreta eskaintzen hasi da. Honako telefono hau jarri du herritarren eskura: 692 56 61 60. Elkargoak



Lasarte-Oriako Osasun Zentroaren artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

boluntarioen zerrenda bat egin du, behar hori sentitzen duten pertsonen laguntza psikologikoa emateko. "Berrogeialdiak eragin dezake jendearen aldarrean, isolamendu egoeratik eta egunero, etengabe, koronabirusari buruzko albisteak eta bestelako edukiak jasotzen dituztelako".

Elkargoak erabaki du talde propio bat sortzea, bere iritziz, laguntza psikologikoa "berme profesionalekin" eskaini behar delako, bai edo bai. Dena den, eskertu du egoera honetan euren laguntza ematen ari diren

pertsonen lana. "Sortu dugun zerrenda kode deontologiko eta etiko batean oinarrituta dago; psikologo horiek kalitatezko arreta bermatzen dute".

Jasotako deiak elkargoak berak kudeatuko ditu, 10:00etatik 14:00etara. Ondoren, profesional bati bideratuko dizkiote kasuak. Eskainiko duten zerbitzua "arreta puntualekoa" izango da; eskainiko dituzte itxialdiari modu egokian aurre egiteko estrategia eta jarraibideak. Baliteke kasuren bat gertuagotik jarraitzea; behararen arabera erabakiko dute.

## Hainbat zerbitzuren ordainketa epea atzeratu du udalak

COVID-19 koronabirusaren eragin ekonomiko eta sozialei ahal den neurrian aurre egiten laguntzeko, Lasarte-Oriako Udalak tributuen arloko hainbat neurri hartu ditu, epeak eten edo malgutzeko. Abian diren prozeduren kobrantzen kasuan, 2020ko maiatzaren 31ra atzeratuko da zorra ordaintzeko muga eguna –ordainagiriak, likidazioak isunak, zatikatzeak, geroratzeak, eta abar–.

Osasun alarma egoera amaitzean sortuko eta aktibatuko diren kitatzen kasuan, 2020ko ekainaren 30era arte atzeratuko da zorrak ordaintzeko epea, ordainketarako muga eguna hori bera edo lehenagokoa bada.

## Erabiltzaileen dudak telematikoki erantzungo ditu KZguneak

Koronabirusa dela eta, zentroak itxi behar izan dituzte eta telefonoz eta posta elektronikoz argituko dituzte erabiltzaileen zalantza teknologiko guztiak. Aurrez aurreko formakuntza eten egin behar izan dutenez, beharrezkoa ikusi dute bere zerbitzuak ematen jarraitzea "eten digitalean" dauden erabiltzaileei laguntzeko; sistema bat sortu dute herritarrek eduki ditzaketen zalantzak argitzeko. "Funtsezkoa da KZguneak laguntza ematea".

Ordutegi eta harremanetarako modu guztiak esteka honetan kontsulta daitezke: <http://www.kazetagusnea.eus/eu/urrutiko-asistentzia>.

## Udal Liburutegiak liburuak bueltatzeko epea luzatu du

Udal Liburutegitik irakurgairen bat maileguan hartu duten herritarrek maiatzaren 4ra arteko epea izango dute, udalak jakitera eman duenez; koronabirusak eragindako egoeraren aurrean, bueltatzeko epea luzatzea erabaki du, herritarrek ezin baitute liburutegira joan, konfinatuta daudelako euren etxeetan.

Badirudi beste bi astez luzatuko dutela itxialdia; kongresuak gaur bertan erabakiko du horri buruz. Proposamena onartuz gero, apirilaren 26ra arte luzatuko lukete alerta egoera. Egun horretara iritsi eta berriro luzatzea erabakiz gero, baliteke liburuak bueltatzeko epea are gehiago atzeratzea.

## Kalean elikagaiak uztea debekatuta dagoela dio udalak

Lasarte-Oriako Udalak herritarrei gogorazazi nahi die elikagairik ezin dela utzi kalean. Ikusi dutenez, Donostia etorbideko bi ataritik gertu kaleko katuei janaria uzten ari direla eta horrek arratoien ugartzeak ekarri duela azaldu dute udaletik.

Osasungarritasun eta higiene arazoa izateaz gain, arau haustea ere bada. Izan ere, herritarren elkarbizitza eta bide publikoen erabilera nahiz garbitasuna arautzeko udal ordenantzaren arabera, galarazita baitago bide publikoan janaria uztea. Ekintza 30 eurotik 300 eurora bitarteko isunarekin zigor daiteke.

## Herritarren "ahalegin eta konpromisoari" aitortza

Lasarteoriatarren lana eta zenbait langileren zeregina goraiatu ditu Agustín Valdivia alkateak, ohar baten bidez

## Txintxarri

Alarma egoera indarrean denetik astebete osatzeaz dela, Lasarte-Oriako Udalak Agustín Valdivia alkatearen idatzi bat zabaldu du. Bertan, bere esker ona adierazi

die herritarrei, erakundeei eta enpresei berrogeialdian izaten ari diren jarrerarengatik.

Lasarteoriatarren "ahalegin eta konpromisoa" aitortu ditu, "eredugarria da milaka

lasarteoriatarren jokabidea, haien ahaleginarekin koronabirusak sortutako pandemiaren aurkako borrokan laguntzen ari baitira".

Egoera honetan lanean ari direnak ere gogoan izan ditu: udaltzainak, garbiketazpikontratetako langileak, Gurutze Gorria eta osasun langileak. Aitortza berezia egin die azken horiei: "Funtsezkoa da haien lana, pandemia gainditzeko". Enpresei eskatu die "elkartasun aurpegi onena" erakusteko.



Agustín Valdivia alkatea, bere bulegoan. TXINTXARRI



Osasun krisiak aurrera egin ahala, geroz eta gogorragoa egiten ari zaio Javierri itxialdiari eustea. MABEL PEDREIRA

# Itxialdiak ohi baino gehiago estutzean

Autismoaz Kontzientziazteko Munduko Eguna da gaur, apirilaren 2a. Horrela, garapenaren trastornoaren duen herritar baten familiaren testigantzak bildu ditu Txintxarri aldizkariak. Eguneroko errutina "ezinbestekoa" duen senidearen itxialdiak eragindako egoera nolakoa izaten ari den azaldu dute, besteak beste

## Maddi Zaldua

Javierrek hiru urte zituenean iritsi zen diagnostikoa: Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN). Hamazazpi urte pasa dira orduz geroztik, eta gaurdaino, errutinak markatutako egunerokoa bizitzera ohitu da Javier. Askok laguntzen dio bere zereginak zehaztuta izateak; urduritasuna eta antsietatea kontrolatzeko ezinbesteko tresna baitira berarentzat. Bizi ditugun garai hauetan, ordea, etxean geratzeko aginduak herritar guztion egunerokoa hankaz gora jarri badu, zeresanik ez Javierrena. Eten egin da bere egunerokoa ere, eta berak ezin du gertatzen ari dena ulertu.

Ez dira aste errazak izaten ari Rebollo Pedreira familiarentzat.

Itxialdiaren lehenengo aste eta erdira "ondo" moldatu zen semea, baina orduz geroztik, geroz eta zailagoa zaio egunerokoa. "Hasierako egunei, neguko edozein egun bailiran, ondo eutsi zien Javierrek, baina geroz eta zailagoa zaio egoera", nabarmendu du bere aita Patxi Rebollok.

Egunerokoa, orain artekoaren antzekoena egiten saiatzen ari dira orain, eta horretarako, errutina bat zehaztu dute. Goizean jaiki, gosalduta eta errutinako

**EGOERAK BEHARTUTA, OHI BAINO ESKUZABALAGOAK IZATEN ARI DIRA SEMEAREKIN**

jolasekin aritzeko tartea hartzen du Javierrek. Musika entzutea ere asko gustatzen zaio, eta horretarako ere bere tarreak hartzen dituela azaldu du bere aitak. Hori bai, egoerak hala behartuta, ohiko egunetan baino "eskuzabalagoak" izaten ari direla ere aitortu dute gurasoek: "Itxialdiak sortzen dion urduritasuna eta oldarkortasuna ez areagotzeko, normalean baino eskuzabalagoak izaten ari gara".

Espaniako Gobernuak emandako aginduari jarraiki, minutu eskaseko irteerak ere egiten dituzte kalera, tarteka; hori bai, betiere kutsatzea ekiditeko neurri guztiak hartuta. Michelingo kirolgune ondoan bizi dira, eta etxeko ataritik futbol zelaian dagoen ate pareraino

iritsita hartzen dute berriro ere etxerako bidea. Baina egoeraren berezko mugak nahikoak ez, eta herritarrek jarritako zenbait oztoporekin egin dute topo egunotan. Besteak beste, etxean sartzeko garrasiak entzun behar izan dituztela jakinarazi dute, baina ez hori bakarrik, semearekin kalera irtetea bizitako beste egoera "gogaikarrietako bat" ere kontatu du aitak: "Laser argi batekin jarraitu gintuzten. Jasangaitza zen egoera eta etxera

**SEMEAREKIN KALERA IRTENDAKO ZENBAIT UNETAN EGOERA "GOGAIKARRIAK" BIZITZEA EGOKITU ZAIE**

irtetuz behar izan nuen semearekin. Gu ez gara nahi dugulako irteten kalera, gure semearen egunerokoa eramangarriago egiteko baizik".

## Egiteko asko oraindik

Autismoaren gaiak aurrerapausoak eman baditu ere, oraindik "egiteko asko" dagoela uste dute Javierren guraso Mabel eta Patxi. "Jendeak ez ditu gure seme alaben jokatzeko moduak ulertzen eta azalpen ugari ematera behartuta sentitzen gara askotan". Mintzatu dira Javierren ezgaitasuna lortzeko prozesuaz, adibidez. "Hamalau hilabetekoa izan da, zaila". Tramiteak horrela eskatzen duelako, epaitegietan ibili behar izan dira, eta horrek, familiarik kostu ekonomiko handia eragin dio. "Erraztu ditzatela prozesu horiek guztiak".

Dena den, esker hitzak ez dituzte alde batera utzi. Horrela, herriko elkarte eta zenbait pertsona ekarri dituzte gogora. Alde batetik Jalgune elkarte. Javierrek bi urte daramatza elkartean parte hartzen eta "oso pozik" agertu dira gurasoak. "Begiraleek lan izugarria egiten dute, oso pozik gaude". Joxe Mari Agirretxe Porrotx-i ere esker hitzak helarazi dizkiote, pailazoak autismoaren egunaren harira -apirilaren 2a, ostegun-grabatutako bideo batek "asko" hunkitu duelako familia.

# Osasun krisiaren eragin zuzena, ekonomian

Osasun krisiaren albo kalte ekonomikoak aztertu ditu Iñaki Erauskin lasarteoriarrak. Deustuko Unibertsitateko ekonomia irakaslea da, eta Koronabirusak eragindako egoerak ekonomiak izaten ari den eraginaren analisia egin du

## Tintxarri

Osasun krisiari aurre egiteko hartu diren "euste-neurriek" (etxeko konfinamendua, besteak beste) krisi ekonomikoa sortu dutela argi azaldu du Erauskin, eta gaineratu du, neurri horiek "berandu" iritsi direla. Neurriak berandu hartzearen zergatiak ere azaldu ditu. "Gobernuak bi alternatiba izan ditu mahai gainean; alde batetik osasuna irabazi, jarduera ekonomikoa murriztu eta Barne Produktu Gordina (herrialde baten jarduera ekonomikoa neurtzeko zuzeneko informazioa ematen duen magnitudea) galtzea; eta beste alde batetik, osasuna galdu, jarduera ekonomikoarekin jarraitu eta Barne Produktu Gordina mantentzea.

Alternatiba horien aurrean, hasieran, agintari politikoei bigarren aukerari eutsi bazioten ere, "osasun-egoeraren okertze nabaria" gertatu, eta ordura arteko norabidea aldatuz, osasuna zaintzeari leku gehiago ematen hasi dira, "konfinamendua agindu duten arte". Hortik aurrera, eta martxoaren 28ra arte, geroz eta konfinamendu neurri gogorragoak ezarri dituzte, eta horren ondorioz, krisi ekonomikoa gogorragoa

izan daitekeela azaldu du herritarrek.

Analisi bat egin du. Jarduera ekonomikoa guztiz murriztuko balitz, astero Barne Produktu Gordina %2 (puntuportzentaletan) jaitsiko litzateke, eta adibide bat ere gehitu dio: lau astez %50a itxita eta beste lau astez %25a itxita, Barne Produktu Gordina %6 jaitsiko litzateke.

Azken egunetan egindako estimazioek Espainiako Barne Produktu Gordina %4 eta %10 inguruan jaitsi daitekeela ere iragarri du, eta Espainiako Gobernuak atzo hartutako funtsezkoak ez diren jarduerak eteteko azken erabakiak kostu ekonomikoa "areagotu" egingo duela azpimarratu du. Magnitude horien garrantziaz hobeto jabetzeko, aurreko krisian gertatutakoarekin datu alderaketa bat bat egin du: Barne Produktu Gordina %3,8 murriztu zen 2009an Espainian.

**"KALTE EKONOMIKOAK AHALIK ETA TXIKIENAK IZAN DAITEZEN SAIATU BEHAR DIRA"**

Egoera horren aurrean gobernuak kostu ekonomiko horrek "ahalik eta iraupen txikiena" izateko saiakera egin behar duela uste du Erauskin: "Politika ekonomikoak ezin du krisi ekonomikoa erabat ezabatu, baina saiatu behar dira kalte ekonomikoa ahalik eta txikiena izan dadin neurriak hartzen".

## Neurriak

Gaur arte Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak "herritarrengandik eta enpresa txikiengandik" gertuen dauden zenbait neurriren berri ere eman du lasarteoriarrak:

ERTEen erabilera: Euskadin 100.000 langiletik gora daude egoera horretan. Enpresatik suspentsio-egoeran sartu eta langabezia-saria kobratzeko aukera ematen du. Espainiako Gobernuak autonomoentzat gizartekotizazioak ez ordaintzeko aukera eskaini du, zenbait kasutan. Espainiako Gobernuak autonomoentzat eta enpresari txikientzat "aparteko diru-sarrerak" aurreikusi ditu, salmentak asko jaisten badira. Eusko Jaurlaritzak autonomoentzat eta enpresari txikientzat, kotizazioak ordaintzeko eta lokalen



Deustuko Unibertsitateko ekonomia irakaslea da Iñaki Erauskin. IÑAKI ERAUSKIN

alokairua ordaintzeko laguntzak (Lanbide) eskaini ditu.

Neurri horiek krisia "leuntzen" lagundu dezaketela uste du, baina horiek aplikatzea ez da nahikoa berarentzat: "Neurri gehiago hartu behar dituzte, eta azkar".

## Herriko komertzioengan eragina

Krisiak bete-bete harrapatu ditu herriko komertzio txikiak eta ertainak, eta horiengan eragin "nabarmena" izango duela azpimarratu du ekonomia irakasleak: "Negozio horien diru-sarrera 0 izaten ari da

ixteko agindua jaso zutenetik, eta Espainiako Gobernuak zein Eusko Jaurlaritzak mahai gainean jarritako neurriak lagungarri izan daitezkeen arren, komertzio txiki zenbaiten jabeek onurarik lortuko ez duten susmoa dut, neurri horiek gehien behar dutenen errenta baino, arlo finantzarioa hobeto estaltzen baitute".

Datozen egun eta asteetako bilakaera aurreikustea "zaila" da irakasle lasarteoriarrarentzat, osasun-krisiaren gorabeherek markatuko baitu bilakaera ekonomikoa ere.

## Alokairuan bizi diren herritarrek diru-laguntzak eska ditzakete

Egoera ekonomiko ahulenean dauden pertsona eta familiak zenbait gastu ez ordaintzea eska dezakete, aldi baterako

## Txintxarri

Eusko Jaurlaritzaren parke publikoko etxeetan bizi direnen kasuan, [www.euskadi.eus/zerbitzuak/11022401](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/11022401) egin daiteke laguntzen eskaera telematikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza

eta Etxebizitza sailak prozedura bat martxan jarri du, koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko. Helburua da egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonen aukera izatea, aldi baterako, alokairua eta

komunitateko gastuak ordaintzetik salbustea. Alokabide sozietate publikoa eta Gaztelagun zein Bizigune programetako etxeek jaso ditzakete laguntzak.

Jaurlaritzaren parke publikokoak ez diren etxebizitzaren kasuan, Espainiako Gobernuak emango ditu laguntzak, Covid-19 birusak eraginda, une hauetan alokairua pagatu ezinik dabilzan pertsona eta familiei.



Alokairua ordaintzeko diru-laguntzak eska ditzakete herritarrek. TXINTXARRI



Larrialdi egoera amaitzean, Lasarte-Oriako dendetan erosketak egiteko deia egin die Aterpea Elkarteak herritarrei. TXINTXARRI

# Merkatarien "egoera latza"

Aterpea Merkataritza elkarteak eta bere kideak larrialdi egoerara ahal duten moduan moldatzen ari dira. Laguntza eta hoberi gehiago noiz jasoko zain daude, eta, krisi honi aurre egiteko, erakundeetara eta herritarrei elkartasuna eskatu diete

## Nerea Eizagirre

Koronabirusaren aurkako neurriek, Lasarte-Oriako hainbat denda eta tabernen ixtea ekarri du. Hamabost egunetarako zirudien itxialdia, luzatzen doa eta dendari eta ostalariak kezkatuta daude. Aterpeako lehendakari Miguel Angel Prieto Sanchezek eta lehendakari ohi Ramon Ormazabalek egoerari ahal duten modu hoberenean

aurre egiten ari direla aipatu digute, baina egoera larria izan daitekeela azpimarratu dute.

Aterpeak udalaren laguntzaz egindako azterketa baten arabera, 1.200 pertsona ari dira egun Lasarte-Oriako merkataritza, zerbitzu edo ostalaritza arloan lan egiten. Kasu askotan soldata hori da etxe horretako sostengu bakarra, Ormazabalek nabarmendu duenez: "Pertsona horiek familia

dute. Askorentzat, gainera, soldata hori da etxera iristen den bakarra eta egunerokoari aurre egiteko duten sostengu bakarra. Eta ez naiz ari dendan edo tabernen gastuei buruz hizketan, etxeko gastuei buruz bakarrik ari naiz. Seme-alabak dituzte, elikagaiak erosi behar dituzte, etxeko gastuak... eta horri aurre egiteko ez da zentimorik ere sartuko hilabete honetan".

Aterpea elkarteak kideek merkataritza, zerbitzu edo ostalaritza arloaren egoerak oihartzun txikia izaten ari dela salatu dute. Erakundeek aurrera eramandako neurriak nahikoak ez direla eta dirulaguntzen eta hoberi fiskal gehiagoren esperoan daude.

"Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalak tasa batzuen ordainketa atzeratu dute. Jarduera eteteagatik eman ahal dituzten laguntzen zain gaude edo aurreko seihilekoko kopuruak kontuan izanik salmenten %75eko murrizketa jasan dutenentzako dirulaguntzak jakitera eman eta tramiteak egiten hasi ahal izateko zain", jakitera eman du Ormazabalek.

Laguntza horiek eskatzeko ordea zailtasunak dituztela nabarmendu du Prietok, eta epeetan malgutasuna egotea eskatzen die erakundeetara. "Aholkularitza bulegoak topera dabilta egun eta zaila da kasu batzuetan erakundeek eskatutako paperak lortzea. Horregatik epekin malgutasuna izatea ez legoke gaizki. Gainera, autonomo guztiak ez dugu errealitate bera eta batzuen kasuan, gainera, ez dira teknologia berriekin ongi moldatzen edo ez daude ohituak eta paperak lortzea zailago egiten zaie. Laguntzak lortzeko formularioak betetzea ere ez da erraza izaten eurentzat".

Autonomoen kuoten barkatzea ere aipatu dute hartu ahal den neurri gisa. "Ez dakigu ordaindu beharko ditugun edo ez". Elkarriketa egin eta hurrengo egunean Espainiako Estatuak horien ordainketaren atzerapena onartu zuen.

Eta Lasarte-Orian, udalarekin bilera egin beharko luketela uste dute Aterpeako kideek. "Esate baterako, udalak hartutako lehen neurrietako bat ostalaritzako terrazen ixtea izan zen. Terrazaren lizentziak gastu bat suposatzen du ostalarientzat eta orain ezin dute baimen hori erabili, beraz, ostalarientzat nolabaiteko hoberia egon beharko litzatekeela uste dugu. Oraintxe itxia dauden dendek eta taberneek ez dute gasturik, ez dute ura erabiltzen, ez dute zaborrik sortzen... Itxia dagoenez, gainera, ezin diegu aurre egin tasa eta zerga ezberdinei. Aurrera eraman daitezkeen neurriak hartu daitezkeela uste dugu".

Erakunde guztiei elkartasuna eskatzen die Aterpeak. "Gu ere elkartasun horren zati bat gara, baina guk ere laguntza behar dugu".

Laguntza eskaera hori herritarrei ere luzatzen die elkarteak. "Herritarrek egoeraz jabetzea nahi dugu. Gure kaleak, gure herria, gure plazak, dena itxita ikusteak zer suposatzen duen jabetzea. Lasarte-Orian hori gertatzea nahi ez badugu, larrialdi egoera amaitzean lasarteoritarrei herrian erosteko eskaera egiten diegu. Herritarrek eta herrian kontsumitzea beharrezkoa da herriko merkataritza aurrera ateratzeko", zehazten du Ormazabalek.

"Herritarrek behar ditugu. Azkenean, etenik ez duen soka bat da, merkataritza ongi badoa kaleak alai egongo dira eta gainera, lana eta bizia sortzen da. Gizarte hobeagoa eraikitzeko oinarriak ere badira. Lasarte-Oria hobe eraikitzeko", atxiki du Prietok.

## Zuzendaritza aldaketa eta erronkak

Aterpea Merkataritza eta Ostalarien elkarteak zuzendaritzan kargu aldaketa izan zen martxoan. Gehienak zuzendaritzako kideak ziren dagoeneko, baina kargu berria hartu dute, eta, segituan, lehen arazoari egin behar izan diote aurre. "Guztionez berria den egoera hau bizi behar dugu. Konplexua izango da eta lan handia egin beharko dugu gure bazkide guztiei aurrera egiten laguntzeko. Gure esku dagoen guztia egingo dugu", adierazi du Prietok.

Aterpea elkarteak ildo berari helduko diola jakitera eman du Prietok. Antolatzen dituen ekimenen egitarauan moldaketarik egingo ez dela zehaztu du. "Guztiak

aurrera eramateko helburua dugu, baina krisiak zer egiten utziko digun ikusi behar dugu".

Bazkideen partaidetza handitzea izango da zuzendaritza honetako xedeetako bat, "Zuzendaritzak guztia antolatzeke esfortzua egiten du eta erantzuna kasu batzuetan ez da espero genuena. Ea nola lortzen dugun. Agian bizi dugun egoerak hausnartzen laguntzen digu. Indarrak batu, batak besteari lagundu, bat egin eta herria egiteko. Zerk balio duen konturatzeko lagundu ahal digu egoerak", azaldu du.

Horren harira, Aterpeak bazkideen eskura tresna ugari jartzen dituela nabarmendu du

Ormazabalek. "Tresna horiek batzordetik bazkideei eskaini dizkiegu. Bazkideen zerbitzura tresnak jartzen ditugu eta bakoitzak zein tresnak onura ekarriko dion erabaki behar du. Izan ere, ez da berdindu ostalari, zerbitzu edo denda batentzako tresna".

Beste helburuetako bat salmenta moduen eguneraketa izango da. Aterpeako lehendakari berriak Interneteko hainbat salmenta konpainiekin suposatzen duten lehia aipatu eta sare sozialetan herriko merkataritza eta ostalarien presentzia areagotu beharko litzatekeela azpimarratu du. "Sare horietatik ibiltzen diren gazteak erakartzeko aukera izan daiteke. Instagram kontua ere sortu beharko genuke. Martxan ditugun beste

sare sozialei ere indarra eman beharko genieke, Facebook esate baterako".

Eta udalak elkarteari eskaintzen dien tresnari ere uko egin ezin diotela aipatu du, "Tratu on bat webgunea dugu. Udalarekin dugun elkarlana indartu eta merkatariek eta ostalariek ere webgunea erabiltzea nahi dugu, euren jarduna ezagutzera emateko".

Hori guztiaz gain, lehendakari berriak esker hitzak besterik ez ditu Ramon Ormazabal lehendakari ohiarentzat. Ormazabalek, ordea, ez du zuzendaritza taldea uzten, bokal lanetan geratuko da eta bere eskarmentua zuzendaritzan baliagarria izango dela azpimarratu du Prietok. "Bere esperientzia, aholkuak eta laguntza eskertuko ditugu".

# Ikastetxe eta ikasleak ikasturteari eutsi nahian

Egun batetik bestera, koronabirusak eragindako osasun larrialdia dela eta, atek itxi behar izan dituzte ikastetxeek, eta, orain, ikasturtea amaitzeko bi hilabete pasatxo geratzen direnean, etxetik eutsi behar diote ikasketa prozesuari, ahal duten moduan, teknika desberdinekin



Agindu berririk jaso arte Lasarte-Oriako ikastetxeek itxita jarraituko dute. TXINTXARRI

## Teknologia berriek erraztu dute prozesua

Martxoaren 13az geroztik itxita daude herriko ikastetxe guztiak, printzipioz, alerta egoera bukatu arte. Zuzendaritza taldeek ikastetxeetatik jarraitzen dute eguneroko martxan, baina irakasle gehienak etxetik ari dira ikasleekin lanean

### Txintxarri

Ikastetxeak itxeko agindua eman zuten unean “urduritasun handia” sortu zen Oriarte Landaberriko irakasleen artean, baina poliki-poliki, irakasle zein ikasle eta gurasoak egoera berrira moldatzen ari direla jakinarazi du ikastetxeko zuzendaritza taldeak. Halaber, egokitzea beste aukerarik ez dute izan beste ikastetxeetako irakasle, ikasle eta senideek ere. Lasarte-Oriako eskoletako irakasle

gehienak etxetik ari dira lanean, baina zuzendaritza taldeek, ordea, ikastetxeetan jarraitzen dute.

Landaberri eta Garaikoetxea Landaberri eraikinekin, adibidez, ohiko ordutegian zabalitzen dituzte atek bertatik lan egin nahi duten irakasleentzako.

Sasoeta-Zumaburun ikastetxeetako irakasleak ere etxetik ari dira egunerokoarekin, eta zuzendaritzako kideek azaldu dutenez, bideokonferentzien zein

whatsapez koordinatzen dituzte ikasleei bidali beharreko lanak. Gurasoekin ere etengabeko harremana mantentzen ari dira, emailaz. Oriarte Landaberri ere gainerakoen antzera, etxetik, nahiz eta bakar batzuk material bila ikastetxera joaten diren.

Oriarte Larrekoetxe erakinean irakasle gehienak etxetik lanean ari badira ere, batzuk ikastetxera joaten dira ikasgaiak prestatzeko, edota klase birtualak emateko.

Landaberri bezala, ikastetxe hau ere irekita dago (09:00etatik 14:30era), eta zuzendaritza taldea, administrariak, atezainak eta garbitzaileak ikastetxean jarraitzen dute, ordutegi bereziekin.

### Ikasketa prozesuari eusteko

Lehen neurri horiek adostuta, ikasketa prozesuari eusteko ahaleginetan ari dira egunero. Landaberri eta Garaikoetxea Landaberri esaterako, ahal duten neurrian saiatzen ari dira asteroko bilerak mantentzen. Horrela, irakasleek mailako bilerak egiten dituzte (gehienak telematikoki, baina ikastetxera datozenak, ikastetxean bertan). Bilera horien helburua aste horretan telematikoki egin ditzaketan lanak adostea da, baita ikastolako beste zenbat gai lantzea ere. Tutoreak dira familiarekin harreman zuzena mantentzen dutenak (emailaz edo telefonoz), eta tutoreak ez diren irakasleek tutoreei pasatzen dizkiete ikasleen lanak.

Sasoeta-Zumaburun web orria erabiltzen ari dira familiarekin kontaktuan egoteko, eta plataforma horretan ari dira ikasleentzako lanak, helbideak eta hainbat informazioa zintzilikatzen. Batzordekideek ere lanean jarraitzen dute eskolako hainbat proiektu martxan jartzeko.

Oriarten clasroom, drive eta korreoa erabiltzen dituzte, eta horietako batzuekin bideokonferentziak ere egiten dituzte. Emaila, plataforma birtualak erabiltzen dituzte

### NEURRI HANDIAGOAN EDO TXIKIAGOAN ERAGINA IZANGO DU IKASLEENGAN, ETXETIK LAN EGITEAK

gehienetan, baina egoera honen aurretik ere erabiltzen zituztenez, erraztu du neurri batean egoera berriko lan egiteko modura egokitzeak. Klaseko ordutegiak mantentzen saiatzen ere ari dira: “Eguneroko erritmo bat ezarri eta mantendu nahi dugu, ikasleek heziketa prozesuari konektatuta jarrai dezaten”.

Guztieki argi dute, ordea, modu batera edo bestera eragina izango duela egoera horrek ikasketa prozesuan. Adierazi dute ikasleen senideekin harremanetan egoteak laguntzen duela, eta orokorrean ikasle eta gurasoak “ondo” erantzuten ari direla. “Familia bakoitza ahal duen modu onenean ari da ikasketa prozesuan aurrera egiten, baina etxe bakoitzeko errealitatearen eragina ere antzematen da”, Landaberriko zuzendaritzaren hitzetan.

Sasoeta-Zumaburun ikastetxean ordutegia mantentzeari garrantzia eman diote; jaikitze orduari eta otorduenari, besteak beste. Gainera, goizean bi orduko lana egiteko proposamena egin diete ikasleei, eta arratsaldean ipuin edo liburu bat irakurri behar dute gaztetxoek. Hori amaituta, mugimendua lantzeko jolasak egiteko ere gomendatu diete, telebista ikusteko ordubeteko tartea zehaztea eta eguneroko ordutegian gomendatzea.

Batxilergoko ikasleengan eragina ere izango duela aurreikusten dute irakasleek. Bertako ikasleek ikasturtea amaitzeaz gain, unibertsitaterako sarrera neurtzen duen froga ere egin behar dute, eta horrekin kezkatuta ere agertu dira irakasleak. Dena den, oraindik ezin dute jakin zenbaterainoko eragina izango duen, horregatik, momentuz, ikasleak orain arteko bidean eusteko ahaleginetan ari dira.



# Ikasturteari eusteak berebiziko garrantzia duenean

Ibai Iribar, Elene Arruti eta Ainara eta Beñat del Olmo ikasleen testigantzak bildu ditu TXINTXARRI-k

## Txintxarri

Lasarte-Oriak Batxilergoko 2. mailako ikasleak dira. Ezin imajina zezaketen kurtsoaren azken txanpa etxean sartuta amaitu beharko zutenik. Koronabirusak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, egun batetik bestera ikastetxeak itxi, eta, zailtasunak zailtasun, etxetik ari dira ikasketa prozesua jarraitzen. Errutina mantentzen saiatzen ari dira Ibai Iribar, Elene Arruti eta Ainara eta Beñat del Olmo anai-arrebak, baina lauek azaldu dute zailtasun batzuk gaingiditu behar dituztela.

## Testigantzak, banan bana

Ikasketa prozesua "zailagoa" dela azpimarratu du Iribarrek. Irakasleekin etengabeko harremana mantentzen ari direla azaldu du. Irakasleek jarritako lanak ordu eta egun jakin baterako entregatu behar dituzte.

Prozesu honetan teknologia berriek "egoera erraztu" egin dutela dio ikasleak, baina Koronabirusak eragindako egoera dela eta, data batzuk, unibertsitaterako sarbidea neurtzen duen frogarena, besteak beste, atzeratu egin dituzte, eta horrek eragina izango du ikasleengan: "Nahiago dugu ekainean azterketa guztiak amaitu eta udaz gozatzera, baina egoera honek eragingo digu".

Egoera berean dago Elene Arruti ere. Irakasleekin harremana mantenduz jarraitzen ari da egunerokoarekin, eta azaldu du institutuan jarraitu behar zuten gai zerrenda berarekin ari direla lanean, baina erritmoa "moteldu" egin dela: "Zenbait irakasgaitan gaien ordena aldatu egin da, baina ikastetxean baino mantsoago ari gara egoerak hala behartuta".

Unibertsitatera sarbidea neurtzen duen froga uztail hasierara aldatu izanak ez du kezkatzen Arruti, baina badu azterketa horren inguruko beste kezka bat: "Gaiak behar bezain ondo lantzeko aukera ez izateak kezkatzen nau".

Beñat eta Ainara del Olmo anai-arrebek ere bizipen berak partekatu dituzte. Azken bi asteak "zailak" izan direla nabarmendu dute. "Irakasleekin aurrez aurreko harremanik ez izateak ikasgaiak ulertzeko eta ikasteko prozesua zaildu egin du". Aipatu dute, ordea, lagungarria zaiela etxe berak bi pertsona egoera berdinean izatea: "Elkarri laguntzen diogu".

Beñatek aitortu du, etxean geratzeko agindua eman zuten unean ohartu zela arazoa "serioa" zela, eta orain, etxetik atera ezinik dagoen une hauetan, senide eta lagunekin elkartzeko aukerarik ez izateak "frustrazioa" sentiarazten diola.



Ikasketa prozesuari etxetik jarraitzea "zailagoa" eginen ari zaio Ibai Iribar ikasleari. IBAI IRIBAR

Ibai Iribar, Elene Arruti eta Ainara eta Beñat del Olmo ikasleen testigantzak ikusteko egin klik hemen



Etxetik lan egiteak erritmoa "moteldu" egin duela azaldu du Elene Arrutik. ELENE ARRUTI



Elkarri lagunduz ari dira ikasketa prozesua aurrera eramaten Ainara eta Beñat del Olmo anai-arrebak. AINARA ETA BEÑAT DEL OLMO

# "Inoiz ahaztu ezingo ditugun bizipenak izan genituen"

**LORENA ZABALA** IZOTZ-HOCKEY JOKALARIA

Lorena Zabala (Lasarte-Oria, 1989) herritarrak Gasteizko Sumendi izotz-hockey taldean jokatu du. Aurtengoa ez da denboraldi erraza izan Zabalarentzat, lepaustaia hautsi zuen abendu hasieran; Sumendik ere ezin izan du Ligako finala jokatu

## Nerea Eizagirre

Lasarte-Oriako herritarrak kirol zaleak dira, ezin ukatu. Kirol aukera zabalean, Lorena Zabala herritarrak izotz-hockeya aukeratu zuen. Txuri-Urdinen lehen pausoak eman eta gero, Gasteizko Sumendi izotz-hockey taldean ari da egun lanean. 2018-2019 denboraldian, Liga eta Kopako finalean izan zen taldea; Zabala Munduko txapelketan ere lehiatu zen. Aurtengo denboraldia, ordea, ez da

aurreikusitako bezala gauzatu. Zabalak lepaustaia bat hautsi zuen entrenamendu batean abenduan; Sumendi Iberdrola Ligako ateetan geratu zen eta koronabirusa dela eta, ezin izan du Kopako lehiaketa jokatu. Herritarrarekin hitz egin dugu, egungo egoera eta iazko denboraldia gainbegiratzeko **Denboraldi erdia jokatu ahal izan duzu. Pena bat da lesioa izatea, aurreko urteetako aurreikuspenak zenituen?**

Bai, horrela zen, baina min hartu nuen. Denboralditik denboraldira talde bezala hobetzen goaz eta indibidualki ere garapena nabari da. Fisikoa zaintzen dugu, elikadura eta errutinak zorrotz jarraitzen ditugu eta hori jokoan nabari da.

**Aurten Ligako azken faserako sailkatu zarete baina Valdemorok finaleko atea itxi dizue. Sumendik denboraldi ona egin du. Talde lan handia egin du, baina beste kirol**



Lorena Zabalak azarora arte jokatu ahal izan zuen. Lepaustaia hautsi ostean, 2020 urtean ezin izan

**guztietan bezala defentsa lana garrantzitsua da.**

Izotz-hockeyan, beste kiroletan bezala, golak sartu behar dira. Era berean, defentsa lan ona ere egon behar da. Defentsa ona egiteak ez du esan nahi arerioak golik ez egitea, erasoak lantzea ere bada. Jokaldi onenak

defentsako jokalarietatik hasten dira.

**Aurten finala Valdemorok Majadahonda da, iaz Sumendi izan zen Majadahondarekin batera garaikurra jokatu zuena. Gol bakarra egin diozue aurten eta iazko denboraldian ez zenituen golik egitea lortu; kopan, ordea, hiru. Arerio gogorra da Madrilgo taldea, ezta? Bai, horrela da. Ligako talderik indartsuena da. Jokalari asko ditu eta eskarmentu handikoak dira. Klubak baliabide eta babesle asko ditu. Bidaia egiteko, esate baterako, autobusa dute. Gure kluba bestelakoa da. Txikia da eta guraso talde batek kudeatzen du. Ahal duten guztia egiten dute.**

**Aurten denboraldi erdia bakarrik jokatu duzu, 2018-2019 denboraldian, ordea, askotariko bizipenak izan zenituen: Liga eta Kopako finala, Munduko txapelketa, e.a.** Bai, urte biribila izan zen. Emaitzek ere lagundu zuten eta

## "Lehiaketak bertan behera uztea bigarren mailako kezka da orain"

Koronabirusa dela eta, izotz-hockeyko denboraldia amaitutzat eman da. Ligako finala hiru partidara jokatu da eta bakarra lehiatu da; kopa lehiaketa ere bertan behera geratu da.

**Nahiz eta Ligako aukera galdu; oraindik Kopa jokatzeko zenuten, baina ezin izan duzue parte hartu?**

Bai, martxoaren 24n jakin arazi zuten lehiaketa guztiak bertan behera geratzen zirela. Atzeratu

dituzten partidak bakarrak Liga finalekoak izan dira Europako lehiaketa ezberdinerako sailkapena jokoan baitago. Horiek irailean jokatu dira. Nire ustez hartu duten neurria normala da. Izotz pista gehienak maiatzean atek ixten dituzte eta ezingo genuke ez entrenatu, ezta jokatu ere.

**Zer suposatu du etenaldiak Sumendirentzat eta jokalarientzat?**

Etenaldia egingo zela jakitera eman zutenetik, taldeko kideak astean hiru edo lau egunetan lan fisikoa edo yoga egiteko geratzen gara, Skype bidez. Helburu bikoitza du, batetik forma mantentzea eta bestetik taldearekin harremana mantentzea.

Hau erronka pertsonal handia da jokalarientzat. Ez da erraza forman mantentzea eta Skypeko hitzorduak garrantzitsuak dira horretarako. Laguntza handikoak dira, talde lotura mantentzen da, entrenatzen duzu, entretenitzen zara.

Eta batez ere, guztia normaltasuna bueltatzean taldearen alde borrokatu eta zure hoberena eman beharko duzula gogorarazten dizu.

Sumendi klubarentzat Kopa lehiaketa erdira uztea suposatzen du. Baina ez gara talde bakarra eta bizi dugun egoera ikusita, ez dut uste garrantzia handirik eman beharko litzaiokeunik. Lehiaketak bertan behera uztea bigarren mailako kezka da oraintxe bertan.

**Beraz, hurrengo denboraldi berriari begira egongo zarete dagoeneko. Etenaldirik egiten al duzue?**

Normalean lan serioa abuztu erdialdean hasten da. Baina egia da ez dugula urte osoan zehar atsedetik hartzen. Udaberrian eta udan patin-hockeyan ibiltzen gara (entrenamenduak, udako lagunarteko txapelketak...) eta lan fisikoa ere egiten dugu.

**"DEFENTSA ONA EGITEAK EZ DU ESAN NAHI ARERIOAK GOLIK EZ EGITEA, ERASOAK LANTZEA ERE BADA"**



an du partidarik jokatu. SUMENDI IZOTZ-HOCKEY TALDEA

Munduko txapelketan egon nintzen.

Entrenamendu eta ahalegin handien ondorioa izan zen nire ustez. Atsegingarria da lanak fruituak ematen dituela ikustea. **laz Ligan 16 partida jokatu zenituen, 13 laguntza lan eta 6 gol eginez. Aurten gol bat egin zenuen. Ohikoa da defentsa batek golak egitea?**

Ez dira aurrelari batek sartzen dituen adina gol, baina ohikoa da. Gure lana gol jokaldia sortzea da eta aukerarik badago jaurtiketa zuzena egitea. Izan ere, asko errebote bihurtzen baitira. Eta izotz-hockeyan gol gehienak erreboteei esker sartzen dira. **2018 urtean, Espainiako selekzioak maila igoera lortu zuen. laz, Dumfrisen, Eskozian jokatutako Munduko txapelketan brontzea lortu zenuten. Ongi hasi zenuten lehiaketa bi garaipenekin, baina gerora zaildu egin zen...**

Bai, gehiago lortzeko aukera izan genuen, baina pozarren

**"ENTRENAMENDU ETA AHALEGIN HANDIEN ONDORIO IZAN ZEN IAZKOA DENBORALDIAN BIZITUT NUENA"**

gaude eskuratuko emaitzarekin. Harro gaude egin genuen txapelketaz. Partidaz partida guztia alda zitekeen eta zirrargarria izan zen.

Inoiz ahaztu ezingo ditugun bizipenak eta sentipenak izan genituen eta zorionekoa naiz bizi ahal izateagatik.

**Sumendiz gain, beste euskal talde bat dago Ligan, Txuri-Urdin hockey taldea. Taldeen arteko lehia handia da?**

Beste taldeekin izan dezakegun lehiaren antzekoa dela esango nuke.

Duela denboraldi batzuk talde bakarra zegoen Euskadin, Txuri-Urdin; Gasteizen Sumendi taldeak ez zuen emakumezkoen talderik, taldeko kide asko bertan izan ginen jolasean eta beraz, Txurin lagunak ditugu.

**Bi talde hauei esker, Euskadin izotz-hockey maila altua dagoela esan daiteke...**

Dударик gabe, horrela da. Gainera, jokalarik gazteak maila hori gainditzeko gai direla da hoberena. Belaunaldi berriek etorkizun handia dute.

**Izotz-hockeya ez da jendetza handia biltzen duen kirola gurean, baina beste herrialdeetan kirol ezagutua da eta horretatik bizi dira kirolariak. Zure kasuan nola uztartzen dituzu entrenamenduak, partidak eta lana? Zeintzuk dira zailtasun nagusiak?**

Denda batean egiten dut lan, beraz, ordutegi horren arabera moldatzen naiz. 20:00etan ateratzen naiz lanetik eta 21:00etan iristen naiz entrenamendu saioetara. Nik zortea dut horrela egin ahal izateaz, beste jokalariek okerrago dabilta.

Partidak ditugunean, berriz, asteburua konturatu gabe doa igatzen da. Izan ere, esate baterako, Granadaraino joan behar baikara. Gure ibilgailuetan, gainera. Hori igaro eta aste osoan asteburuko nekeari buelta ematen saiatzen zara...

Horretaz gain, jokalariek gure taldean eta talde nazionalen ahal dugun heinean kostuak murrizten saiatzen gara. Kontuan izan behar da lehen maila nazionalen ari gabela jokatzeko eta mundu mailan, bigarren mailako A taldean. Egoera dela ere, emaitzak primerakoak dira.

Horregatik, emakumei edo neskei kirol hau probatu eta atzean dagoen guztiaz gozatzera gonbidatzen ditut.

# '(Eskola) kirola etxean', kirolaz gozatzeko aukera

Eskola Kirola egitasmoa jarduera eten bada ere, Lasarte-Oriako begiraleak eta Gipuzkoako Foru Aldundia lanean dira. Begiraleek TXINTXARRI aldizkariko 'Lasarte-Oria TB' atalean ikusgai dagoen bideo-sorta bat osatu dute, haur eta gazteei zuzendua

## Txintxarri

Martxoaren 12an, Eskola kirola egitasmoa jarduna hamabost egunez etetea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak proposatutako neurriak aintzat hartuz. Lehengo astean, ordea, etena apirilaren 11era arte luzatuko duela jakitera eman zuen Aldundiak, martxoaren 28an larunbatean Espainiako Gobernuak onartutako dekretuarekin bat eginez. Eta Gobernuak apirilaren 4an iragarritako luzapen berria eta gero, ikusteko dago azken data zein izango den. Izan ere, Eskola kiroleko jarduera abian jartzea Koronabirusak eragindako osasun larrialdiari aurre egiteko hartzen diren neurriek baldintzatua egongo baita, batez ere, ikastetxei buruz hartzen diren erabakiek baldintzatuko dute. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko zein Eskola Kirola egitasmoa begiraleak ez daude geldirik eta lanean dihardute.

## '(Eskola) kirola etxean'

Etxean gauden egun eta aste hauetan kirola eginez tarte atsegin bat igaro, eta, bide batez, gorputzak mugi ditzagun, Eskola Kirola egitasmoa begiraleek hainbat iradokizun egin dituzte



Haur eta gazteek egin ahal dituzten ariketak edo jokoak dira. ESKOLA KIROLA

eta (*Eskola*) kirola etxean bideo-sorta osatu dute.

Begiraleek hiru bideo prestatu dituzte guztiek egiteko moduko ariketekin. Bi bideoetan etxean izan ditzakegun gauzekin –malabarak, esate baterako– egin ahal diren erronkak eta hiruko marra joko berezia nola egin erakusten dute.

Horren guztiaren ostean, gorputza erlaxatu eta luzaketak egiteko aukera ere eskaintzen dute, yoga saio baten bitartez.

TXINTXARRI aldizkariko webgunean Lasarte-Oria TB

atalean eskuragarri daude (*Eskola*) kirola etxean bideoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, lurraldeko kirol arloko eragileekin, telematikoki, harremanetan dagoela jakinarazi du, larrialdi egoerak lurraldeko kirol egitasmoetan duen eragina baloratzeko.

Era berean, Kirol Zerbitzua eta bulegoak lanean ari direla nabarmendu du, eta telefono zein e-posta bidez ari direla zalantzak eta bestelako kontuak erantzuten. Etenda dago aurrez aurreko zerbitzua.

## Ariketa fisikoa egiteko aholkuak Udal Kirol Zerbitzuaren eskutik

Larrialdi egoera dela-eta, Udal Kirol Zerbitzuak ariketa fisikoa egiteko baliabideak jarri ditu herritarren eskura

## Txintxarri

COVID-19 koronabirusak eragindako alarma-egoeraren ondorioz ezarritako itxialdian kirola egitea eta aktibo mantentzea garrantzitsua dela gogoratu du udalak. Herritarrei

horretan laguntzeko, Kirol Arloak, Bizkortzeni esker, ariketa fisikoa egiteko baliabide errazak eta didaktikoak eskuragarri jarri ditu <https://entrenadesdecasa.bpxport.es/webgunearen/bidez>.

Halaber, hainbat gomendio ere bildu dituzte lesioak saihesteko. Norberaren egoera fisikora egokitu behar da ariketa eta progresiboa izan kopuruari, zailtasunari, intentsitateari nahiz iraupenari dagokionean. Era berean, modu seguruan egin behar da, arropa eta oinetako egokiek, inguru aireztatu eta oztoporik gabean.

Osasunarentzat onuragarri izan dadin, nahikoa da intentsitate ertainean 20-30 minutuz ariketa fisikoa egitea.



Maialen Chourraut, Munduko txapelketako finalean. Tokioko Olinpiar Jokoetako txartela lortu zuen orduan. Dokumentalean lehiaketa honetako aurretiko lana eta hausnarketak ikus daitezke. RFEF.ES

# Kirolarien barne hausnarketak

'Maialen Chourraut. Beldurretan Arraunean' dokumentala aurkeztu dute egun hauetan. Beldurrak, lesioak, kezkak... Lasarte-Oriako palistak Tokioko Olinpiar Jokoetarako sailkapena lortzeko egin duen bidea aurkezten du lanak

## Nerea Eizagirre

Brasilgo Olinpiar Jokoetatik Tokioko Olinpiar jokoetara, lau urteko bidea egin behar izan dute kirolariek. Azken urtea gogorrena izan ohi da plaza olinpikoa baitago jokoan. Maialen Chourraut palista eta herritarrasailkapen hori lortzeko lehian egon da. Presio handia eta barne hausnarketa asko eragiten die maila altuenean lehiatzeak eta hori da, *Maialen Chourraut. Beldurretan Arraunean* dokumentalak aurkezten duena.

"Kanala ikusi eta urrezko domina etortzen zait burura", dio txapelkun olinpikoa dokumentalean. Brasilgo Olinpiar jokoetan urrezko domina eskuratu zuenetik, Maialen Chourrautek Tokioko Olinpiar jokoak zituen jomuga. Ametsa urrezko domina, berriro eskuetan izatea.

Lehenik, plaza olinpikoa lortu behar zuen. Lau urte hauetako

bidea, ordea, ez da erraza izan. Arazo fisikoei aurre egin behar izan die, baita barneko beldurrei ere. Inigo Asensiok zuzendu duen lanean, entrenamenduak, lehiaketak, hausnarketak, kezkak, desirak... Azken bi urtetan, Maialen Chourraut piraguistak bizitako esperientziak ezagutzeko aukera ematen du lehen pertsonan.

"Dokumentalean ikusiko duzuen Maialen hori ni naiz. Uste dut oso ondo islatuta dagoela. Kanpotik ez dakit ze Maialen Chourraut ezagutuko den baina hau da barruko, eguneroko Maialen Chourraut" adierazi du txapelkun olinpikoa.

Bere inguruko testigantzak ere bildu dituzte, hala nola, senar eta entrenatzaile Xabier Etxaniz eta amarenak. Londres 2012an zilarra eta Rio 2016an brontzea irabazi zituen Jessica Foxen

hitzak ere entzun ahalko dira, beste kirolarienen artean.

Dokumentalaren irudiak Rio de Janeiro, Australia, Paue, La Seu d'Urgell edo Lasarte-Orian grabatu dituzte, besteak beste.

## Guztien eskura

Korima Filmsek Traolarekin eta EITBekin ekoiztutako dokumentalaren aurrestreinaldia online egin zen, martxoaren 27an.

Ekitaldia Donostiako Aquariumean zen egitekoa, baina bertan behera utzi zen, COVID 19 koronabirusaren hedapena dela-eta. Era honetara, Basque

**"TOKIOKO OLINPIAR JOKOAK URTE BETE ATZERATU DIRA ETA KIROLARIA ZER GERTATU ZAIN DAGO"**

Team Fundazioak babestutako lana denez, fundazioko kirolariek, babesleek eta erakundeetako kideek bakarrik gozatu zuten *Maialen Chourraut. Beldurretan Arraunean* dokumentalaren aurrestreinaldiaz.

Apirilaren 3an, berriz, ikusle guztiei eskainitako estreinaldia egin zuen EITBk. Gainera, ikusle guztien eskura jarri du dokumentala, EITB Nahieran. Era honetara, olinpiar txapelkunari buruzko lana nahi adina ikusteko aukera eskaini du.

## Tokio 2021

Tokiorako bidea, ordea, urte bete luzatuko da, mundu mailan hedatzen ari den koronabirusa dela-eta. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak abuztuan Japoniako hiriburuan egin behar ziren jokoak 2021ko abuztuan egingo zirela jakitera eman du. Beraz, dena airean dago Maialen Chourrautek Basqueteam taldeari eskainitako hitzetan azaldu bezala. "Galdera asko airean daude eta zerotik hasia bezala izango da".

Olinpiar jokoetan data kirolarien egutegian markatutako data da eta horri begira lan egiten dutela azpimarratu du Chourrautek. "Moldaketa onartzen ari naiz. Izan ere, guztia horretara zuzendua baitzegoen, Olinpiar Jokoetako plaza lortzeari eta izena abizena jartzeari eta behin hori lortuta, lehiaketa hori ahalik eta hoberen prestatzeari. Orain

hori guztia ezabatzen da eta federazioek plaza horiei buruz zer esaten duten ikusiko dugu. Ea izena abizenak mantentzen diren, ez sekezio probak egin beharko ditugun, ea naziorteko federazioak olinpiar kuotak berriro banatzen dituen... Gauza asko airean dago".

Horregatik, egoerara moldatu beharko da Brasilgo txapelkun olinpikoa. "Burua reseteatu eta entrenamenduak, denboraldi berria... planteamentu behar dugu. Baina gauza asko dantzan edo airean daude eta denak estruktura pixka bat hartzera itxaron behar dugu dena planifikatzeko. Denborak emango dizkigu erantzunak".

Urte bat gehiago izango dute kirolariek data garrantzitsua prestatzeko eta larrialdi egoera honi alde positiboa aurkitzen dio Chourrautek. "Aukera bezala ikusi daiteke eta Olinpiar ziklo berriari aurre egiteko pilak kargatzeko unea izan daiteke".

## Lau Olinpiar Jokotan

Maialen Chourraut K-1 mailako eslalom pobako maila gorenean lehiatu da azken urteetan. 2016ko olinpiar jokoetan, berriz, gertaera gogoangarria lortu zuen herritarrak, banakako kirol batean metal preziatuena lortzen zuen lehen euskal kirolaria izan.

2019ko irailean Munduko kopako finalera iritsi eta Tokioko Olinpiar Jokoetarako sailkapena lortu zuen. bere laugarren Olinpiar Jokoak izango ziren.

# Babes sarea ez dago geldirik

Lasarte-Oriako 50 bat boluntariok osatutako sarea da. Larrialdi egoera honetan, herritarren beharrak aztertu eta horiei erantzuna ematen saiatzen ari dira. Herritarrei sarearen eta egoeraren berri emateko hainbat bide ireki dituzte, hala nola, Telegram kanala edo irratia

## Txintxarri

Euskal Herriko beste hainbat herrietan bezala, salbuespen egoera honi modu kolektibo eta komunitario batean erantzuteko asmoz Lasarte-Oriako Babes Sarea sortu da. Ematen ari diren pausoak eta herriarengana zuzentzeko hainbat bide jarri dituzte martxan.

Lasarte-Oriako Babes Sarea martxan da. Martxoaren 15ean hasi zen herriko boluntario taldea lanean. Oraingoz eskaera gutxi izan ditu, baina Babes Sarearen funtzionamendua geratu ez dela jakitera eman du ekimenak.

Komunikatiboki lan handia egiteko dagoela uste du sareak. Hori dela eta, hainbat bide ireki ditu herritarrek sarearen berri izan eta identifikatutako beharretako bati aurre egiteko, egoera nahaskor honen aurrean kritikotasuna sustatzeari.

Esate baterako, irratia bat jarri dute martxan, Palmondo Irratia. Lehen saioa, larunbat honetan, apirilak 4 izan zen. Bertan irratia funtzionamendua, helburuak, oinarriak eta beste hainbat kontu azaldu zituzten.

Zuzenean igortzen da irratia saioa [stream.maritxusarea.eus:8000/palmondoirratia](http://stream.maritxusarea.eus:8000/palmondoirratia) loturan. Saioak larunbatetan 12:00etan eta asteazkenetan 20:30ean izango dira. Proposamenak bidali edota parte hartu nahi izanez gero, [palmondoirratia@riseup.net](mailto:palmondoirratia@riseup.net) helbidera bidali behar da mezua. Instagramen ere berriak jaso eta podcastak entzun ahal dira [palmondoirratia](http://palmondoirratia) izenaren bitartez.

Telegram kanal bat ere zabaldu dute, [t.me/LasarteSaretzen](https://t.me/LasarteSaretzen). Bertan albiste, informazio, iritzi-artikulu, etab. desberdinak jarriko dituzte kanalera batzen diren herritarren eskura. Harremanetarako bide bezala ere baliatuko dute. Eta herriko elkarte guztiei haiei buruzko informazioa helarazi diete, horien bazkide eta lagunaren artean partekatuz. Bertan beharrak dituzten herritarrei 663 229 676 telefono zenbakia euren eskura jarri dutela jakinarazten zaie.

Martxoaren 15ean babes sareari forma ematen hasi zen Lasarte-Oriako herritar talde bat. Orduetik

hona jende ugari batu da sarera eta gaur egun 50 herritarrek osatzen dute Babes Taldea.

Sareak medio nagusietatik jasotzen diren mezuak indibidualistak eta norbanakoaren zaintzan zentratuak daudela-eta, zailtasun egoera ugari erantzun azkar bat ematea eragozten duela salatzen du, "are gehiago zenbait egoerari bakarrik erantzun ezin zaienez: izan adinarengatik, izan lanarengatik edota baliabide murrizteengatik".

Horregatik lanean hasi eta herritarren beharrak identifikatu ditu sareak: oinarriko produktuen erosketak; lan kargarengatik, zaintza lanak egiteko zailtasunak izatea; nekazarien jarduna indartzea; bakardade sententzioaren aurrean zaintza telefoniko bat ematea eta egoera nahaskor honen aurrean kritikotasuna sustatzea.

Babes taldearen jarduerak irizpide zehatzak dituela jakitera eman dute. Babes sareko mediku eta erizainek egindako osasun protokolo batzuk jarraitzen dituzte eta zaintza lanetarako ere

## BEHARRIZANAK ASETU BEHAR BADITUZU

663 22 96 76

ZENBAKIRA DEITU



1

### ELIKADURA EROSKETAK EGITEKO

Oinarriko beharrizanak asetzeko premia baduzu, eta ez baduzu etxetik irteteko aukerarik, DEITUIGUZU!

2

### FARMAZIAKO EROSKETAK EGITEKO

Farmaziako produktuak behar badituzu, eta ezin baduzu etxetik irten, DEITUIGUZU!

3

### HAURREN ZAINZA BEHAR BADUZU

Lanagatik edota bestelako arazoren batengatik adingabeen zaintzaz arduratu ezin baduzu DEITUIGUZU!

4

### BOLUNTARIO IZAN NAHI BADUZU

Komunikazioa eta koordinazioa errazteko, idatzi EMAILERA.

## LASARTE-ORIAKO BABES SAREA

LASARTEKOBABESTALDEA@GMAIL.COM

protokolo bat ezarri dute. Horrez gain, erosketak herriko denda txikiengan egin, eta posible den neurrian, inguruko nekazarien elikagaiak eskuratuko dituztela jakitera ematen dute.

Hori guztia aurrera eramateko, auto-antolaketa garrantzia azpimarratu nahi dute. "Egoerak koordinazioa ez duenez errazten, auzoka edo komunitate bakoitza

bere aletxoak jartzen saiatuko gara, gertutasuna lehenetsiz".

Egoera egun batetik bestera aldakorra dela ikusita, sare zabala izatea ezinbestekoa dela uste dute ekimeneko kideek. Horregatik, herritarrek sarera batzea gonbidatzen dituzte, "lasartekobabestalde@gmail.com" helbidera mezu bat bidaltzea besterik ez da".

## Erakundeak ere laguntza eskaintzen

Herritarren mugimenduek hartutako indarrak ikusirik, erakundeek ere erantzuna eman nahi izan diete herritarren beharrei eta laguntza zerbitzuak jarri dituzte martxan.

Lasarte-Oriako Udalak eta Gurutze Gorriak, esatea baterako, 65 urtetik gorako dependentsia duten pertsonen laguntzeko zerbitzua adostu dute. Zerbitzu hori eskatu nahi dutenek, hainbat baldintza bete beharko dituzte: Lasarte-Oriako familiarik ez edukitzea batetik, eta Etxean Laguntzeko Zerbitzuaren (ELZ) erabiltzaileak ez izatea.

Honako prozedura ezarri dute:

- Zerbitzu hori behar duen pertsonak Udaleko Zerbitzu Sozialetara deitu beharko du, 943 376 179 zenbakian, eta han langile sozial batek hartuko dizkio datuak.
- Langile sozialak kasua baloratuko du eta, onartuz gero, Gurutze Gorriari pasatuko dizkio datuak.
- Gurutze Gorria zerbitzuaren erabiltzaileekin kontaktuan jarriko da, eta boluntario bat etxera noiz joango zaion esango dio.

- Gurutze Gorriko boluntarioa pertsona horren etxera joango da, eta janari eta botiken lista jasoko du, baita dirua eta osasun-txartela ere, behar izanez gero.
- Erosketak egindakoan, Gurutze Gorriko boluntarioak erabiltzailearen etxera eramango du eta haren ate ondoan utziko du erositakoa.

Horrekin batera, eskerrak eman dizkie herritarrek martxan jarritako babes sareari, baina Gurutze Gorriarekin lotutako akordioak erabiltzaileen segurtasuna "hobe" bermatzen duela uste du.

DYA Gipuzkoak ere bere baliabide eta giza taldeak, boluntario prestatuak eta koordinatuak

jarri nahi ditu "arriskuan eta babesik gabe" dauden pertsonen farmaziako botikak ekartzeko, erosketak egiteko edo arriskuren bat ekar dezakeen beste edozein gestio egiteko.

Interesatuak telefonoz egin behar dute zerbitzu horren eskaera honako zenbakian: 943 464 622.

'Guztion artean' elkartean sarea da Eusko Jaurlaritzak hainbat erakunderen laguntzaz osatutako zerbitzua.

70 urtetik gorako pertsonen eta beste egoera kalteberetan daudenek eskatu dezakete sarearen laguntza, 945 222 222 telefonoan.

# Josteko makinak, elkartasun bide

Maskara eskasia dela-eta, Lasarte-Oriako hainbat herritar euren etxeetan egiten ari dira hainbat ale. TXINTXARRI aldizkariko 'Lasarte-Oria TB' atalean, Ione Artola jostunak maskara nola egin azaldu du ikus-entzunezko pieza baten bitartez

## Txintxarri

Egun bizi dugun larrialdi egoeran, hainbat herritar ari dira haien laguntza eskaintzen. Era askotariko ekimenak jarri dira martxan. Dendetan dagoen maskara eskasia eta herritarren, komertzioen eta erakundeen beharra ikusirik, maskarak egiten dihardute hainbat lasarteoriatarrek.

Lasarte-Oriako *Elkartasun puntadak* ekimena da maskarak egiten ari den taldeetako bat.

Maskaren beharra egon zitekeela ikusirik *Elkartasun puntadak* ekimena lanean hasi zen. "Komertzioak, pertsona adinduak... beharrak aztertu eta martxan jarri ginen. Batez ere, talde zaurgarriak ditugu helburu", azaldu du Carmen Alba ekimeneko kideak. Lasarte-Oriako herria eta herritarrak dira euren helburu eta Aterpea Merkatarik elkarteak bere bazkideei ekimenaren berri jakinarazi diela ere nabarmendu du.

Lasarte-Oriako Atsobakar adinekoen egoitzara, Lasarte-Oriako bi supermerkatuetara, Caritasera edo Donostiako Bretxako azokako postu batera...

egin dituzte maskara bidalketak. Eskaera dezente izan dituzte.

Maskara berrerabilgarriak eta etxean garbitzeko moduak ari dira egiten. Horiek egiteko elkartasun taldeak, hala nola, beste proiektu baterako zituen Togoko herrialdeetik ekarritako oihalak ari da erabiltzen. Beste material batzuk ere eskuragarri izan ditu eta horretarako, herriko hiru mertzariaren laguntza baliagarri izan da.

Egun hogeit bat pertsona ari dira lanean ekimenean. "Batzuk josten ari dira eta josten ez dakigunok, material bilketa eta banaketa eta maskaren bilketa egiten dugu".

Izan ere, taldeko jostunek etxean egiten baitute lan. "Kalera ez ateratzeko, etxetara eramaten zaie materiala eta lana amaituta, eta bilketa ere euren etxeetan egiten da". Maskaren atzean lan handia dagoela azpimarratu du Albak. "Ez da bakarrik maskarak egitea. Horiek banatu baino lehen garbitu eta desinfektatu behar dira eta banaketarako prestatu".

Hori guztia aurrera eramateko laguntza behar du *Elkartasun puntadak* ekimenak. Horregatik,



herritarrak gonbidatzen ditu 669 780 900 telefono zenbakira deitu eta ekimenarekin bat egitera. Laguntzeko hiru bide daude: josteta-lanak egitea, materialak bildu eta banatzeko prest egotea edo oihalak eta gomak oparitu edo saltzea. Azken hau komertzioei zuzendua dago.

## Anbulatorioari laguntzen

Lasarte-Oriako ambulatorioko langileentzat ari da maskarak josten Ione Artola herritarra. Harreman estua du bere familia-medikuarekin, eta haren bitartez jakin du materiala behar dutela herriko osasun zentroan.

Horrela, laguntza eskaini du lasarteoriatarrek, eta horretan ari da, etenik gabe. Goiz-goizetik josteko makina aurrean jarri, eta kotoizko maindireak berrerabiliz sortu ditu maskarak. Goma ere gehitu die bi aldeetan; "maskarak belarri atzean erosoago heltzeko".

TXINTXARRIko webgunerako tutorial bat ere egin du, herritarrek etxean maskarak nola egin ikasteko. *Lasarte-Oria TB* atal berezian dago eskuragarri bideo hori.



Beste proiektu baterako zituzten oihalak edo etxeokoa erabiltzen dituzte. ELKARTASUN PUNTADAK



Ione Artola Lasarte-Oriako ambulatorioarako maskarak egiten ari da. IONE ARTOLA

txintxarri

www.txintxarri.eus

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administrataria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Irati Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maidier Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia


Zeroca Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

### BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:





Xirimiri elkartearen zuten aurreneko bilera Xumelakidz egitasmoaren parte hartu nahi zuten herritarrek, otsailaren 28an, giro ederrean. XUMELAKIDZ

#### Iñigo Gonzalez Sarobe

“Ederra litzateke ‘Xumela junior’ bezalako talde bat sortzea”. Txantxa giroan botatako ideia hori errealitate bihurtu da: Xumelakidz jaio da. Moldatu dute izena pixka bat, baina ez asmo eta helburuak: euskal kanta tradizionalak eta garaikideak abestuz, giro ona sortzea herrian, eta, batez ere, gazteen artean. Intza Alkainek eta Jagoba Mendizabalek kontatu dizkiote TXINTXARRI aldizkariari egitasmoaren nondik-norakoak.

Elkarrizketak aurrez aurre egiten genituenekoak, kafe edo beste edari baten bueltan, Jalgin, adibidez. Horiek bai garaiak. Konfinamendua bukatu artean, beste bide batzuk erabili behar ditugu komunikatzeko, ezinbestean. Skype aplikazioaren bitartez jarri gara harremanetan Alkain eta Mendizabalekin –eskerrik asko Intza, saio birtual hori prestatzeagatik–. Erreportaje honen sarrera irakurri eta gero, gustura parte hartuko zenuketela pentsatu duzenontzat, ohar bat: ez da beranduegi. “Xumelakidz ez da talde finko eta itxia, egitasmo oso-oso ireki bat baizik; euskal kantak abestu eta ongi pasa nahi duen edonork tokia dauka”.

Denbora batean behintzat ezingo dute nahiko luketen bezala abestu: kalean, elkarrekin, poteo giro ederrean edo festetan. Covid-19 birusak eragindako egoera tarteko. Horrek ez ditu Xumelakidzen animoak itzali, ordea: kantu-jira birtual bat egin dute honezkerok.

# Herriko gazteak ere, kantuan

Euskal kanta tradizionalak eta garaikideak abestuz ongi pasatzea eta belaunaldi gazteen arteko harremanak indartzea. Horiek dira Xumelakidz egitasmo sortu berriaren helburu batzuk. Gure etxeetan konfinatuta gauden honetan, kantujira birtualak egiten ari dira

Ez da azkena izango. “Beste saio bat prestatzen ari gara”, aurreratu du Alkainek. “Oso ondo pasa genuen; pantaila beteta ikusi nuen nik, eta hori pozgarria da”.

#### "Ezetz whatsapp talde bat sortu?"

Intza Alkain eta Jagoba Mendizabalek lan egiten dute *Goiz Txoko*-n, Ttakun Kultur Elkarteak Garaikoetxea-Landaberri ikastetxera joaten diren haurrentzat eskaintzen duen harrera zerbitzuan. Gaztetxoak iristen hasten direnean, musika jartzen dute begiraleek. Txikiek eskatzen

#### "XUMELAKIDZ EZ DA TALDE ITXIA, EGITASMO OSO-OSO IREKIA BAIZIK; TOKIA EDONORK DAUKA"

dizkiete *Go!azen* saioko abestiak eta Ene Kantak-ekoak, batez ere. “*Go!azen* programan hainbat euskal abestiren bertsioak egiten dituzte, moldatuak: Mikel Laboaren *Baga, biga, higa* esate baterako”, zehaztu du Alkainek. Begiraleek kantatzen dituzte abesti horiek txikitik ikasi bezala, eta txikiek ez dituzte ezagutzen.

Orduan bururatu zitzaizen ideia: “Ederra litzateke gazteok sortuko bagenu Xumela junior estiloko zerbitzu, kalean kantuan aritzeko giro ederrean”. Txantxa giroan planteatu zuten hasieran, baina gero erronkak botatzen zizkioten elkarri, galdera moduan: “Ezetz whatsapp talde bat sortu egitasmoaren berri emateko jendeari?”. Esan eta egin: zabaldu zuten ideia telefono bidez. Erantzuna ezin hobea izan zen: herritar asko batu ziren whatsapp talde horretara.

Jende ugari egitasmoan parte hartzeko prest zegoela ikusita, aurrez aurreko bilera bat antolatu zuten otsailaren 28an. Xirimirin elkartu ziren, afari eder baten bueltan: “22 pertsona azaldu ginen, nahiz eta badakigun jende gehiago prest dagoela parte hartzeko prest”.

#### Harremanak sendotzen

Lasarte-Oriako belaunaldi gazteen arteko harremanak sendotzea. Hori da Xumelakidz egitasmoaren beste helburuetako bat, euskal kantak abestuz ongi pasatzeaz gain. Xirimirin egindako afari-bilerak balio izan zuen horretarako,

#### "EUSKAL KANTA TRADIZIONAL ZEIN GARAIKIDEEKIN OSATU DUGU ERREPERTORIOA"

Mendizabalek aipatu duenez: “Horrelako ekimenek bultzatzen dute pertsonen arteko harremanak indartzea; giro ederra sortu zen afarian”. Ez da azkena izango: “Horrelako saio gehiago egiteko gogoz geratu ginen; seinale oso ona da hori”, gehitu du Alkainek. “Martxoko azken larunbatean, hilak 28, Gazte Egunean parte hartu behar genuen, eta hori prestatzeko beste bilera bat egin behar genuen Xirimirin, baina, tamalez, bertan behera utzi behar izan dugu. Konfinamendua amaitzean egingo ditugu saio gehiago; irrikaz gaude”.

Uda iritsi artean bazeuzkaten zita batzuk apuntatuta agendan. Gazte Eguneko saioaz gain, Sorgin Jaietan abestera gonbidatu zituzten antolatzaileek. Horrez gain, Joxe Mari Agirretxerekin bilera bat egin zuten, aztertzeko ea posible ote den Xumela eta Xumelakidz elkarrekin kantuan aritzea, edo bestelako ekimenen bat antolatzea.

“Nahi ditugu euskal kanta tradizionalak berreskuratu eta ikasi, horien transmisioa bermatzeko, baina baita gure garaikoak diren hainbat abestu ere”, nabarmendu du Alkainek. Hainbat kantarekin osatu dute errepertorio bat, nahiz eta oraindik ezin izan dituzten guztiak kantatu. Aurreko asteko kantu-jira birtualean, esate baterako, uztartu zituzten garai desberdinetako zenbait pieza: Imanolen Mendian gora haritza eta hainbat euskal artistak elkarlanean egindako Aurrera Altsasu!, esate baterako. Atzoko eta gaurko taldeen piezak biltzen ari dira: Sorotan Bele, Joxe Ripiau, Oskorri, Hemendik At!, Berri Txarrak, Izaro Andres...

Abesti horiek guztiak –eta gehiago– kantatu nahi dituenak, taldean eta giro ezin hobean, Xumelakidzekin harremanetan jartzea besterik ez du egin behar: Instagram kontu bat zabaldu dute duela gutxi: @xumelakidz. “Ez dugu adin-tarte maximorik zehaztu; gazte sentitzen edonork parte hartu dezake”, adierazi dute Alkainek eta Mendizabalek. Konfinamendua amaitu bitartean birtualki jardutea beste erremediorik ez dute, baina itxialdia ez da betirako izango. “Konfinamendua amaitzean kalean ibiliko gara berriro, poteoetan, festetan, elkarrekin kantatuz... Izugarritzko gogoa daukagu hori dena egiteko.”



TXINTXARRI-k ez du zenbakirik inprimatuko paperean alerta egoerak irau bitartean. TXINTXARRI

# TXINTXARRI-ren erabakiak garai zail hauetan

Koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko, lantaldeak erabaki du ez duela paperezko zenbakirik argitaratuko alerta egoerak irau bitartean, aldizkaria egiteko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien osasuna bermatzeko. Zenbaki digitalak egingo ditu bitartean

## Txintxarri

Pertsona askok parte hartzen dugu aldizkaria egiteko prozesuan: kazetariak eta publizista-etxetik ari dira lanean martxoaren 17tik-, Zeroa Multimedia inprentako langileak, etxez etxe aritzen diren banatzaileak eta Correoseko langileak. 8.000 ale banatzen

ditugu herri osoan zehar, eta ez bakarrik lasarteoriatarren buzoietan: eramaten ditugu komertzio eta dendetara, ikastetxeetara, erakunde publikoetara... itxi egin behar izan dituzte atek gehienek, alerta egoera amaitu arte. Irakurle askoren begietatik eta eskuetatik pasatzen dira

paperezko zenbakiak, beraz. Hori guztia kontuan hartuta, lantaldeak erabaki du ez duela zenbakirik inprentara bidaliko alerta egoerak irau bitartean, prozesu horretan parte hartzen duten pertsonen osasuna ezin dugulako %100 bermatu.

Bien bitartean, aldizkari digitalak prestatzen hasi gara: PDF

formatuan igoko ditugu gure web orrialdera. Irakurtzen ari zaren hau izan da lehenengoa; bildu ditugu asteotan argitaratutako hainbat eduki interesgarri.

Espainiako Gobernuako presidente Pedro Sanchezek apirilaren 26ra arte luzatu asmo du itxialdia. Gaur eztabaidatuko du horri buruz kongresuak. Neurri hori onartzekotan, apirilaren 24ko zenbakia ere ez genuke argitaratuko paperean, baina bai PDF formatuan. Aurreko bi asteetako ostiraletan, berriz, 10ean eta 17an, zenbakirik ez geneukanez aurreikusita, bere horretan mantenduko dugu egindako prebisioa. Aldizkaria inprimatzeko prozesua berme guztiekin gauzatu ahal dugunean ekingo diogu berriro zeregin horri. Bien bitartean, formatu digitaleko aldizkariak jarriko ditugu irakurleen eskura, baina hamasei orrikoak izan beharrean, zortzikoak.

## Webgunea erreferente

TXINTXARRI euskarri fisikoan ez argitaratzeak ez du esan nahi langileok geldi gaudenik, inondik ere. Gure web orrialdea, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus), indartzera bideratzen ari gara gure ahalegin eta ilusio guztia egun zail eta ezohiko hauetan. Egunero elikatzen dugu albiste, erreportaje eta elkarrizketekin. Atal berezi bat sortu dugu koronabirusak eragindako egoerarekin zerikusia duten pieza informatiboak

biltzeko: *Koronabirusa Lasarte-Orian.*

Era berean, *Lasarte-Oria TB* kanala sortu dugu, herritarren itxialdia zertxobait arintze aldera, ikus-entzunezko piezak bilduz eta eskainiz: sukaldaritza errezetak, euskal dantzak, eskulanak, ipuinak eta bestelako edukiak. Horri lotuta, proposamen bat egin diegu gure irakurleei: konta diezagutela nola daramaten itxialdia, bideo edo testu bidez. Eta jarraitzen dugu buruari bueltak ematen eta ideiak biltzen, datozen egun eta asteetan are ekimen gehiago martxan jartzeko. Gustura jasoko ditugu zure ekarpenak ere, irakurle, [txintxarri.kazetaria.1@ttakun.eus](mailto:txintxarri.kazetaria.1@ttakun.eus) helbidean eta 688 68 35 10 telefono zenbakian.

Iragan astean inkesta bat zabaldu genuen gure irakurleen artean, beraien iritzia jakite aldera, eta galdera hau egin: "Noiz bukatuko da konfinamendua?". Beheko zatiduran ikus ditzakezue emaitzak zeintzuk izan diren.

Lasarte-Oriako kaleetan eta zuen etxeetako buzoietan laster topo egingo dugulakoan, animo guztioi, zaindu zaitezte, eta geratu etxean.

## EGUNERO ARI GARA ELIKATZEN GURE ATARI DIGITALA, ALBISTE, ERREPORTAJE ETA ELKARRIZKETEKIN

## Maiatza, bozkatuena

Irakurleen iritzia jakite aldera, inkesta bat egin du TXINTXARRI aldizkariak. Galdetu die ea, beraien ustez, noiz bukatuko den konfinamendua. Martxoaren 14tik daramagu etxean, koronabirusak eragindako osasun krisia tarteko. Pasa den larunbatean, Espainiako Gobernuako presidente Pedro Sanchezek iragarri zuen asmoa duela itxialdia apirilaren 26ra arte luzatzeko; Espainiako Kongresuak onartu behar du proposamen hori, gaur egingo duten bilkuran, asteazkenez.


Konfirmatuko balitz itxialdia beste bi astez luzatzen dela -Konstituzioaren 116. artikulua dio alerta egoerak ezin direla aste gehiagoz luzatu-, argi geratuko litzateke apirilaren 11n ez garela gure etxeetatik ateratzen hasiko. Hori zen guk planteatutako inkestaren aukeretakoa bat. Argi geratu da irakurle gehienek ere

aurreikusten zutela alerta egoeraren beste luzatze bat, boto portzentajeek erakusten dutenez: 180 pertsonatik hiruk besterik ez dute aukeratu apirilaren 11, parte-hartzaileen %1,66, hain justu.

### Aukera bozkatuena, maiatza

Maiatza. Urteko bosgarren hilabetea. Orduan bukatuko da konfinamendua. Hori izan da irakurle gehienek bozkatu duten aukera: 181etik 95ek, parte-hartzaileen %52 pasatxok. Inkesta aukerez gehiagi ez betetze aldera, ez genuen zehaztu aste edo egunik. Luza da maiatza, 31 egun baititu. Horietakoren batean aterako gara etxetik, irakurle horien iritziz.

Inkestako hirugarren aukera: itxialdia apirilko azken egunetako batean bukatzea. Arestian esan bezala, gaur onartu behar du Espainiako Kongresuak



alerta egoera beste bi astez luzatzea, apirilaren 26ra arte, igandea. Inkestako bigarren aukera bozkatuena izan da hori: botoen %27,77 jaso ditu, lautik bat -guztira, 50-.

Badago uste duenik egoera hau oraindik eta dezente gehiago luzatuko dela. 27 pertsonaren iritziz, ekainean bukatuko da konfinamendua. Beste seiren aburuz,

ekainean ez, uztailen edo are beranduago deuseztatuko du Espainiako Gobernuak gaur egun indarrean dagoen alerta egoera; botoen %14,4 eta %3,33 jaso dituzte bi aukera horiek, hurrenez hurren.

Martxoaren 14an ezarri zuen alerta egoera Espainiako Gobernuak. Apirilaren 11n 29 egun beteko dira neurri hori hartu zuenetik, eta gehiago luzatuko dela dirudi.